



1

Neska gazteak biolina jotzen du.

2

Neska gaztea biolina jotzen ari da.



1

Lehenengo perpausean
NORK kasua hartzen du
subjektuak; izan ere, **JO**
aditz iragankorrek
adierazten duen
ekintzaren egilea da
'**neska gaztea**'.

2

Bigarren perpausean,
berriz, NOR kasua
hartzen dute bi
argumentuek ('**neska**
gaztea', '**biolina**'): **JO**
aditz iragankorra **-TZEN**
ARI IZAN egitura
progresiboan bildurik
dago, eta **ARI IZAN**
aditzak gobernatzen du
egitura.



Konplexua da bigarren perpaus hori. Bi perpaus ditugu hor:

- Perpaus nagusia:

[_pneska gaztea *zerbaitetan* ari da]

- Mendeko perpaus jokatugabea, *zerbaitetan* horren lekuan:

[_pbiolina jotzen]



Aditza iragankorra zein iragangaitza izan, NOR kasuaz markatzen dira argumentuak **-TZEN ARI IZAN** egitura progresiboan:

- Emeki-emeki ateratzen ari da **eguzkia**.
- **Uraren maila** igotzen ari da.
- **Miren** Perurrekin hitz egiten ari da.
- **Aneren bizitza** *beste norabide bat* hartzen ari zen.



Beraz, adi ibili:

- Portugesa **ikasten ari naiz**.

**Portugesa ikasten ari dut.*

- Urtemugako festa **prestatzen ari zaizkio** adiskideak Aneri.

**Urtemugako festa prestatzen ari diote adiskideek Aneri.*

- Medikiak sendagaiak **ematen ari dira**.

**Medikak sendagaiak ematen ari dituzte.*



-TZEN ARI IZAN En egitura bera dute mende baleko euskalkietako beste egitura progresibo batzuek:

-TZEN IBILI

- **Paseatzen dabil.**
- Hanka-puntetan jarrita, aitari musu emateko ahaleginak **egiten dabil.**
- Itxurak **egiten dabil.**
- Ahal duguna **egiten gabilta.**
- Peritu judiziala isurketak **ikertzen dabil.**
- Alaba Zuzenbidea **ikasten dabil.**
- Saltzen dabilena **galtzen dabil.**

-TZEN EGON

- **Bazkaltzen gaude.**
- Itxaron apur bat: zapatak **garbitzen nago.**
- Emakumea komiki bat **irakurtzen dago.**
- Hogeitaz lagunen lanak **egiten dago** makina bakarra.
- Barrabaskeriaren bat **egiten dago** gure Mari.



Bestalde, **-TZEN JARDUN** egitura ere ohikoa da erabilera horretarako:

-TZEN JARDUN

- Filosofia **ikasten dihardu**.
- Maletak **egiten dihardu** Leirek.
- Ase ezinik **edaten dihardugu**.
- Antolatzaileek aretoa **husten dihardute**.
- Zenbat lagunek **diharduzue** egitasmoa **lantzen?**

**Zenbat lagun diharduzue egitasmoa lantzen?*

- Neska gazteak biolina **jotzen dihardu**.

**Neska gaztea biolina jotzen dihardu.*



Gehiago jakin:

Laka, Itziar (2004). Ari progresiboaz: euskararen kasu markak. In Pablo Albizu & Beatriz Fernández (arg.), *Euskal gramatika XXI. mendearen atarian: arazo zaharrak, azterbide berriak*. 113.-132.

